

Cultura | Libros

Albaitaria eta argazkilaria elkar hartuta



Bañeres eta Piedrafita, liburuaren ale banarekin. / F.I.

'Erika. Ez naiz perfektua' argazki-ipuina animalien aldeko kontzientziazioa eragin nahi du

FELIX IBARGUTXI

Lunes, 5 marzo 2018, 19:04



'Erika. Ez naiz perfektua' izeneko argazki-ipuina plazaratu dute **Alfonso Bañeres** albaitariak eta **Alfredo Piedrafita** argazkilariak **Erein** etxearen bitartez. Protagonista eta narratzailea triku afrikar bat da, **Erika** izenekoa, abandonatua izan dena eta, basoan batetik bestera dabilenez, zenbait animaliarekin topo egiten duena.

«Hanka bat falta zaio trikuari. **Bere burua onartzeko eta munduan bere tokia bilatzeko egiten duen ibilbidea**, horixe da ipuin honetako gaia», adierazi du Erein etxeko Iñaki Aldekoa editoreak.

Oinarri erreala daukan fikziozko istorioa da. Idazleak, Alfonso Bañeres bizkaitar albaitariak, horrelako triku abandonatu bat ezagutu zuen.

«Umeentzat jaio zen istorio hau, baina segituan ikusi genuen helduei ere interesatzen zaiela», esan du. «Nork bere akatsak onartu behar dituela, nork bere burua maitatu behar duela, hori kontatzen du liburuak».

Kontzientziazio-lana egin nahi du ipuinak. **Basati** izeneko albaitari elkarteko kidea da Bañeres. Egun 47 kide dira eta bi lan egin ohi dituzte: zauriturik edo abandonatuta dauden animaliei lagundu, eta tratu

txarreatatik salaketetan peritu-lana. «Animaliekiko tratu txarrak ohikoak dira. Adibidez, neure txakurrak bi aldiz pozoindu dituzte», salatu du albaitariak.

Argazkiak, berriz, Alfredo Piedrafitak egin ditu, musika munduko pertsona ezaguna, urteetan Barricada taldeko kide izan baitzen, orain Miss Octubre-n ari delarik. «Alfonso ezagutu nuen Ilundainen albaitari zegoelako; egun batean hontz bat askatu behar zutenez, bertaratu egin nintzen argazkiak egitera», esan du Piedrafitak.

Iruñetik gertu, Ezkaba mendi aldean bizi da Piedrafita, eta argazki asko etxe inguruko bazter eta basoetan egin izan ditu. Naturan espezializatutakoa da. Argazki-ipuina aurkeztean, kexu agertu da argazkiak egiteko baimen gehiago eskatu behar izaten direlako Administrazioaren aurrean, ehizean jarduteko baino. Liburuan ikus daitekeenez, fauna ugari dago Euskal Herrian herri eta hirietatik asko urrutiratu gabe: okila, saia, urtxintxa, katajineta, azeria, saguzaharra...

TEMAS Euskera



Recibe nuestras newsletters en tu email


Apúntate

Lo + leído


-
- 1 Javier Cansado: «Hay quien piensa que nos fumamos algo para subir al escenario»
 - 2 Trikitilari gazteen talentuaren eta ekarpenen bila
 - 3 El salón del cómic crece y se abre a más públicos
 - 4 Una definición de lujo nada lujosa
 - 5 National Geographic reconoce su error: «Durante décadas, nuestra cobertura fue racista»

Patrocinada


Noticias relacionadas



**Zamorako apaiz-kartzelako
1970eko ihesaldiari buruzko
nobela**



**«Gazte belaunaldiak
badaude euskara eta
feminismoaren klabeetan»**



**1978ko Tolosako tren
istripua fikzionatu du Karlos
Linazasorok**

**CONTENIDO
PATROCINADO**

Fotos



📷 La obra de Balkrishna Doshi, Premio Pritzker 2018



📷 La aportación vasca a la independencia de EE UU



📺 José Díaz plasma en un documental su vivencia como ermitaño



📺 Navas se une al grupo

Vídeos



📺 'Alaia, euskalduna eta musulmana'



📺 Jóvenes extremeños crean cortos con temática feminista



▶ Netflix estrena tráiler de la segunda temporada de Luke Cage



▶ The Walking Dead registra sus audiencias más bajas

EL DIARIO VASCO

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Domicilio social en Camino de Portuette, 2 San Sebastián 20018



vocento✓

[Contactar](#) | [Aviso legal](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Mapa web](#) | [Política de cookies](#)